

# NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

## EUSKAL HERRIAN BARNAN

### «Euskal Izendegia»

Euskaltzaindiak aginduta Jose Maria Satrustegi jaunak «Euskal Izendegia» delako liburuxko bat prestatu berri du. Euskal izen zerrenda honen argitaratzearen kontuak Iruñe'ko «La Vasconia» Banka etxeak ordaindu ditu.

Iragan berri den azaroan laugarrenean «La Vasconia»-ren Iruñeko Carlos II.—ren Ofizinetan «Euskal Izendegia»-ren liburuxka agerpea izan zuen. Iruñe'ko Egunkari eta Irratien ordezkariek etorri ziren baita ere Euskaltzaindiaren Lehendakari den Aita Villasanta, Nafarroako Diputazioaren «Principe de Viana» Elkargokoak ere han ziren gertakari hau goraaldu beharrez. «La Vasconia»-ren buru den Zozia jaunak hitz batzuek esan zituen sarrera gisan 50.000 ale argitaratuak izan direla azalduak. Gero Satrustegi jaunak «Euskal Izendegia» honak daukan garrantzia beharitasuna eta arrazoiak argiki agertu zituen. Liburuxko honek zapipehun euskal izen dauka bere orrietan bildurik. Izan zerrenda haundi hau azaldu baino lehen euskaldunek beste bi zuzkaten: Arana-Eleizalde'ren.

IXENDEGI delakoak aunitz edatua euskaldunen artean da, eta 1966 urtean Euskaltzaindiak onartu zuen beste «euskal izenzerros», izendegi hau Euskaltzaindiak aututatuko batzorde batek prestatzen Aingeru Irigaray Euskaltzain jaun buru zelarik.

Orain Satrustegi jaunak lehenengo izendegiak iastatu ditu eta gainera aintzineko paperartik euskal izenak ausarki bildu ditu «Euskal Izendegi» mardul eta lirain bat argitaratuz emanez. Goresmenak Satrustegi jaunari eta «La Vasconia»-ri nere partetik.

### Euskal Sari iakingarria

Bere garaian Euskal Sari honen berriak eman nituen. Iain den irailaren «euskal Orri» hontan bereanesan nuen Iruñeko «Caja de Ahorros Municipal» delakoak bere ehun urte mugakaria era berezian ospatzeko «Euskal Literario Sari eder bat» jarri zuela. Sari hontan sartzeko idazlanak euskaraz idatziz izan behar dira. Gaiak librezoak eta euskal nafar idazleentzat bakarrik. Sari honen garrantzia agerian da irabazteak ehun mila pezeto jakoso ditu (100 mil pezeta tumotan argiro jartzeko).

Esan duten bezala bere tenorean azaldu nuen sari eder hau, bafio orain herririo «euskal Orri» hontara dakart zergatik epea urte honen azken egunean amaitzen bait da.

Xahetun eta beste berriak baino nahi duenak idatz bezala Iruñe'ko Caja de Ahorros Municipalaren zuzenbideetara: Sarasate-Iruña.

IKUSLE

## AXULAR SARIA ARALAR-KO SAN MIGUEL

Aspaldiko historia izanen da. Arras ongi dakizki gure aitak hemen inguruen gertatutako historiek, eta nik entzun bezala erango dut.

Urteak aunitz hement Aralar mendian, bizi izan omen zen gizon sonatue, Gofiko zaldune erraten ziotena. Oker aundie egin zuena: Aita eta ama hil oiean lo zaudela.

Gero Aita Santuak mendira yon eta penitentzi egiteko agindu zion. Kate lodi bat gerritik zintzilik zualarik. Teodosio zuen bere izena eta gizajoa burnizko kate lodia arrastaka, han ibiltzen zen batera ta bestera ifokin solasik izan gabe, piztien Igesi. Baina han leze-zulo batean egoten omen zen eren-suge aundie arras gaiztoa gizonak yaten zituna eta ifior agertzen espazer berak yateko, bera yausten omen zen Huarte Arakil inguruetara ta arrapatzen zuna misto zorrotza sartuta laister irintsitzen omen zuen. Horregatik herrira jatsi baino len hobea zela mendira joan da yatera ematea, ta familietan suertea botatzen omen zuten zein yan eren-sugena. Han bean senar-emazteak bizi alaba batekin eta iruren artean suertea bota ta aitari, erori zitzaion eren-sugearena yotea. Alabak erraten dio aitari:

—Guk zu yon da zer egin behar dugu Ni ni yoanen naiz zure partez.

Horrela alaba yon mendire ta han arkitu zen Gofiko Don Teodosio Zaldunekin. Eta honek erran zion:

—Zertara etorri zara zhoneara?

—Hara aitaren partez, ni etorri naiz eren-sugeak yan nadin.

Orduan Teodosioak zion:

—Ez horrelakorik. Zu yon zaite etxera eta utzi nerl, nik konponduko dut eren-sugea. Biok burrukatuko gera ta ikusiki dugu zein geran gehiago.

Leze zuloti atera zen eren-sugea eta Teodosio yon zan bereganana ta burrukatu ziren biek zta zilipurdika han zebiltzen bat beste ito nahion. Teodosio larri bera ito behar zuela ikaratu zanian, San Migel Aingeruari del egin zion:

—San Migel Aingerua anpara nazazu galtzera noa ta!

Orduan zeruan aditu zen abotz aundie eta San Migel-ek erran zion Yaungoikoari:

—Mundura deitzen naute, zer egin behar det.

—Zozai. Erran zion Yaungoikoak. Eta zapaldu ta akabatu zazu eren-suge gaizto hori.

Zerutik jexti zen San Migel kurutze ta ezpatakien eta jori buruan eta hantxe hil zuen. Orduan Teodosio-ri kateak erori zitzaizkion Yainkoren fede aundie izan zualako eta bere penitentzie kunplitu ta biurtu zen poz aundiz bere etxera.

Gaur ere San Migel hau degu napar Herria gordetzen duna. (Gora San Migel)

MARIA LOURDES ANTIXORENA

ZIGA. 13 urte.

## LESAKA'KO LEGE ZAARRAK

Orain direla urte batzuek lege hau izan zen Lesaka'n: Ziren lau baserri: UBIRIA, DINDUNEA, BERROTARAN eta PIKABEA.

Etxe oken izenak eldu ziren apellidatu batuetatik eta ziren: DINDUNA, BERROETA, PIKABEA eta UBIRIA.

ETXE hoketan bizi ziren lau neskatza eta zituzten senar gaiak gerlan.

Egin ziren laurak il.

Orduan neskatza hoiak bazuten hobea dotea egin zuten lauen artean dotea elkartu eta eleizari eman gurutze bat erosteko. Gurutzearekin egin behar zuten norbait litzin ze nean, apezak baserri honetara difuntun bila joan, neskatxan etxe bakoitzara.

Horretarako beharra zen apellidua ez galdutzea eta egin ziran denak galdu UBIRIA ez bertzerikan.

Eta horregatik eleizan ofrenda egiten danean behara du UBIRIA'ko norbaitek lehendabiziko joan.

MIREN LOURDES MARITXALAR TAPIA

Amairu urte. LESAKA

## JABIER ARANBURU GAZETARIA TA IZTUETA GIPUZKOAR IDAZZLEA

Jabier Aranburu gizon gaztea degu oraindik. Lana, gazetari bezala egiten du. Langintza ortan Gipuzkoa'n oso gutxi dira bera bezin onak eta Euskalerrian ometakoa daukagu. Geienean euskal kulturaren berriak ematen ditu. Ez da lana eretxa. Ortarako jakin bear da, gaiak bereizten, mania bakartzen eta bearezkoenak azaltzen. Berak dion bezala, Euskalerria ugarte pila edo artxipiela goa bihurtu arkitzen degu, ori dana alkartu bearra dago.

Bera, artxipiela goa rekin kontinentia egiten alegintzen da.

La Voz de España egunkarian idazten ditun, «Euskalerria» izenburuko lanak, egitaz euskal kulturaren autopieta bihurtu ditu. Berari esker, Iruñe'n, Gaztelu'n, Lizarran, Durango'n edo beste alderetietan zer gertatu dan jakiten degu. Bere lan guzti oietan, Euskalerriko gaien zaletasuna ta maitsasuna agertzen digu. Eresi gaitan degu batez ere jakintzua ta gure dantzak oso atsegin zaizkio. Nafarroa asko maite du ta Añuamendi, Aralar ta Andia bazterretan, errialde ontako gauza ederak ikusten alkarrekin ibilli gera.

Euskaldun garbia da, On darrabitarra. Nafarroa aldeko euskera erret mintzaten du, baiñan gure izkuntzan idazten etzan askatzen era bat. Gure kulturari itzala gundia eman zezaiola, euskeraz idazten astea nai genuen.

Azkenean, euskaraz berak idatzitako lenengo liburua bidali digu, benetan zoragarria ta polita: Juan Inazio Iztueta, gipuzkoar idazleari buruz egia. Gai politeneko artu du, Euskal idazleri on bat. Iztueta degu eta gainera bere garaiko gipuzkoar dantzen berriak euskeraz eman zizkigunak. Dantzen liburu orregatik da ain eza guna Juan Inazio Iztueta.

Aranburu'k Iztueta'ren bizitza au, bi izkuntzetan idatzi du, aurretzat egia da, oso ondo apaindua gaitzera.



Xabier Aranburu, ORHI Mendian.

fiera. Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxak bere gain argitaratu du, Maitsasunez inguratu bere adiskide bat izan ba lu

bezela agertzen digu Iztueta. Aurrezki kutxak baten antzera, gizon omen bizitza azaltzen die. Esaldiak eta letrorak, erret irakuritzeko moduan garbi esaten ditu. Berealaxe ikusten degu idazlaria dala. Ba daki bere lanari asiera ematen eta bukatzen, baita ere galaren neurria artzen.

Asieratik ematen digun berria irakurrita bereala dena irakurteko gogoan sartzen zagu. Lenengo lerroa ez bai da nolankoa. Berak dion e z 1963 garren urtean Suezietarrak Europa'ko bilerla batean esan omen zuten Suezia'n erri dantzen lenengo liburu zeukatela 1880 urtean idatzia, Suezietarrak etzekitena zan Iztueta'k Gipuzkoa'ko dantzak 1824 urtean idatzialak zeuzkala. Orrekek laguntzen digu konturatzan zenbaterako Iztueta'k maite zuan Gipuzkoa. Iztueta'k ba zeukan ezagurapen garbia, dantza oiek Gipuzkoa'ko bereitasun bat zirala, bere nortasunaren margoa. Gainera gogoan euki bear da orduko Gipuzkoa gaurkoekin ezin degula neurritu. Gaur artan gizaseme gutxiago zituhan.

Iztueta gizon aberatsa dala ikusten degu. Bizitza maite zuan. Irabazteak biltzitzen nuntatik saiatzen zan. Iru aitziz ezkondua zegoen dantzari ona ta idazle trebea genuen. Itz batekin dala esana; langille purrunka ta euskaldun amorratua.

Aranburu'k euskera errikoia xamurra, garbia da errikoia mintzatzan eta ulerzen zuten bezelakoa, eragozpenik gabe irakurtzen dana; bere lenengo idatzia izateko indar aundikoa.

Liburu au jakin dute ez bakarrik idazten, apaintzen ere bai. Ba daramazki marrazki batzuek soilak, bizitasun aundikoak Eujenio Jimenezek egiañak.

Gaur, Iztueta'k, Gipuzkoa'n, esker onez, ba dituzte kaleak, enparantzak eta oroiagarriak. Iztueta'ren eredu onek, beste euskal eskuadretan ote probintzietan jairratzea merezi luke.


Aurreneko astean, Iruña'ri Patxi Arraras'ekin bazkaltzen ari gifiala, ala zion berak: «Iztueta'k, 36 dantza Gipuzkoa'n bildu zituelako, ba dauka kaleak nuni. Nik Nafarroa'n 304 dantza bildu ditudalako zer egin bear ko ote didate?». Azkar eman nion nere erantzuna: «zuri bi alderdikoa kate nagusia Iruña'n, baiñan argitaratu ezazu ten bai len zure Nafarroa'ko dantzen liburu ori».

Aranburu'k Iztueta'ren liburuan esaten ditun azken itzak, Euskalerriko ikastola gurtietan ipintzea merezi luke.

«Urte batzuen barru, injeñero, arotz, igelero, sendagille edo beste zerbait izatean, etzera dantziari edo musikari esker bizi arren, dantza, musika eta Euskalerriri zori dion maitsasunarekin bizi zaite».

LATXAGA

## SANCHO de ELSO-ren euskarazko Doctrina



GURE HERRIA aldizkariaren 1972 abostuaren numeroan, Ainhoako Martin Elso'k artikulo interesgarri bat idatzituen du: Le premier catechisme en langue basque, par Sancho de ELSO. Nafar idazlearen hunk 1561 urtean, Doctrina kristiana... en castellano y Vascuence. Pamplona, 1561, delitako obra bat idatzi zuen, baina hori Nicolas ANTONIO bibliografiazileari esker dakigun txoilik, ezpaita etxenplariorik batera gelditu.

Gure adiskide Martin Elso'k argitaratu eman ditu aunitz zehetasun bere arbaso horren etorkiaz; ulzamarra izan zen, Elso herrikoa, Lope eta Cathalina de Garro andikien semea. Iona de Albret, Nafarroako erregina calvin-darrik urte horietan, BaxeNafarroan kaitolikoari gerla birtizta egiten zion; horregatik, dio Martinek, Doctrina horren etxenplarioak itzali izanen zirela; baina, nik diot, egoaldeko Nafarroan ere, bat edo beste gelditu izanen zela. Sancho de ELSO-ri Espainiako erregeak idatz-arazi baldin bazion, heresiari kontra egiteagatik, Martin Elso'k dion bezala; geiago dena, gaztelaniazko itzulpena duenez; geroz Doctrina horrek.

Martin-ek bere artikuloan dio... Le but recherché par Jeanne d'Albret etait de faire pénétrer la nouvelle religion... par le Pays Basque dont la langue etait parlée jusqu'à Pamplune. Baina XVI garren mendean erdi horian, eta geroago ere, Iruñean euskaraz egiten zelako aunitz lekukotasunik bildu izan dugu: (Iuan de Beriain, Doctrina kristiana en Romance y Vascuence, 1926. Pamplona delakoan irakurtzen da; Tubal... enseño en este Reyno la lengua Vascuence, y despues acá hasta el dia de oy, se ha conservado en toda la muy noble Ciudad de Pamplona y en toda la tierra Bascongada).

Bai eta Eribera alderago ere: Estellan, adibidez: Parroquia de San Juan, 1607... porque en ella de las tres partes la una es Vascongada: RIEV. 4. 1935.

Tafallan ere halaber: Principe de Viana 80-81. Nuevos testimonios de la lengua vasconca en Navarra. A. Irigaray.

Yakintza aldizkarian ere (San Sebastián 1934-8) Artajonako euskarari buruz. El euskara en Artajona (1704 urtean) Idatzi ginuen. Denbora horietan, egoaldeko Nafarroko parte geienean euskaraz mintzaten zen, MORET-ek

mende bat geroago zion bezala bere ANALES delako Historian.

Eta goazen gure arira. Sancho de ELSO autore horri buruz, argitaratu nuen Principe de Viana Iruñeko aldizkarian (n.º 92-92) artikulo bat: Se trata de la Doctrina de Sancho de ELSO? Hontan diot, pergaminozko liburu zahar batean. Recopilación de todas las Leyes del Reyno de Navarra Arrendazir Imp. Labayen. Pamplona, 1614, delako obran aurkitu nuela estalkiaren inrentuarri itasua, paper zaharkitu bat, euskarazko 60 ferro inprimatuekin.

Deslotu ta garbitu ondoan, erdaraz eta euskarazko zati puskatu batzu azaldu ziran, Doctrina edo Katixima batekoak. Nafarrron ezdugu Doctrina bat baizik ezagun... en Romance y Vascuence: Iuan de BERYAIN 1626 urtekoarena; eta eskuen artean dugun geroz liburu bakan hori (beste etxenplariorik ezpaita ezagun), zati berak berdinkaratu izan ditugu, aipatu Doctrina horrena eta guk aurkitu guska honena, eta eztria berdinkat; Doctrina diferenteko dira; kopiatzen ditugun ferro hauek erakusten duten bezala:

Aurkitu papera... aren obrak; iaio cen Virginia Maria... arie: Passatu cuen Passio dolorosa... Pilato juezaren az... crucificatzen, tçien, jaitsien iniferuetara, yrugarren... ean ilietaric resuscitatu cen, y gançen... a eta jarric dago lan goyco Ayta po... en escuñean; nondic etorjico bayta... bitien juzgatera, sinestatzat del es... dua baytan, Elça sandu catholican... s comuñioan besat acioan... gel... calaco.

BERYAIN-en zati... sanduaren obras, eta jayo cen Virginia Mariaren baytatic... Passio dolorosa... crucificatu y canducen... orçipien, eta jarric dago lan goyco Ayta gucia poderosoren escuñan eta andic etorjico da vicien, eta ilien juzgacera... dela Elça sandu catholica...

Bi texto horiek eztria berdin; gure puska inprimatua, beste bietako nafar Doctrina ez ezagun batekoa izan da; eta ta Sancho de ELSO horren Doctrina famatuarena, euskaraz eta erdaraz inprimatua dagoenarena.

A. APART ETXHEBARNE

## Gure Ikastolak (VI)

## ORDU ERDIKO ESKOLAK

Nafarroako ikastolen etorkizunari begiratuaz urterik garantzatuena 1967 izan zen. Ikastetxe Nagusiko, Unibersidadeko, Bost ehun napar ikasleeri erantzunez erabaki haundi bat hartu zuen Diputazioak. Hona hemen, orduan onartutako puntu nagusiak:

1) «Ikastetxe goi-agintariekin elkartuz lehenbiziko eskoletan eta, bereziki, eskola baterau nahiz euskera mintzo edo erdi mintzo duten herri ahunditxoetan, ordu erdiko eskola bat egunero euskeraz, nahi duten haurrendako ezarriko Diputazioak.

2) «Baita ere, beste eskolatxo eta berek eskatutako Jende haundien ikastolak sortzeko eskubidea ematen dakio «Principe de Viana» elkargoari».

Lehenbiziko puntuak eskoletan nolabait sartzeko bidea ematen zion euskeraren aldeko sailari. Ordu arte Neuskeraren zabalkundearen egindako lana, kale lana izan zen: festa, bertsoari txapelketa eta haurren sariketak. Eskolako atariak idekitzera urrats haundia ikus daiteke. Ez zen ordu arte gure hizkuntza inoiz han sartu.


Erdi erdia gutxi zela zioten batzuek. Beste ikasgai guzien atzetik eta haurra nekaturia zelarik ematea ere omen zen ikasbide egokiena. Egia da; baina sartzera bera ez zen gutxi. Bigarrena aurrerago dioja: «eskolatxoak idekitzeko» esku-bidean ikastolen amets haundia ikus daiteke. Izan ere, hori ginuen buruan. Jende haundien eskolak aspaldikoak ziren hiri nagusian. Beste herri batzutan zabaltzeko ahalagindu beharra zegoen. Diputazioaren babesak asko esan nahi zuten, berez; eta diru laguntza zekarren gainera.

Urtarrilaren hogeita zortzikoa erabakia; mila bedratzi ehun eta hirongi ta zapiia eskubiko begitiki sartzen hasia zen Nafarroako euskal alorrean. Lanbide berria aurrera eramateko izendamenak ekartzen ditu gero. Gotzai jaunari era berean jokatzeko laguntza eskatuaz bukatzen da Diputazioaren idatzia.

Euskera mailteak bere bizi luzean ezagutu ez zuten omalidia hartzen zuten gortan: jakintza mailako ofizialtasunaren agiria. Inoiz biltzen ba da, ez da semetat inoiz hartua izan ez den bastarta bezala joango.

S A G I

## PIO BAROJAREN LEHEN SARIA



DEIA

Bera Bidasoako «Gure-Txokoa» soziedadek Pio Baroja jaio zen ehun urte betetzea ospatzeko, ipui sari bat antolatu du, idazle berriak sortzeko asmoekin. Nafarroako Diputazioa, «Delegación Nacional de la Cultura», Nafarroako Aurrezki Kutxak, Iruñeko Aurrezki Kutxa Municipalak, «Amigos del País», eta bertze soziedaderekin laguntzarekin.

1.—Sariketa honetan parte hartzen ahal dute ipuin berri guztiak, gaiak librekin, euskeraz edo erdaraz idatzialak eta hamar foliotatik pasa ez ditezanak.

2.—Bakoitzetik lan bat bakarra onartuko da, eta hogeita hamar urte bete begoentzat da.

3.—Orijinalak BERA BIDASOAKO Gure-Txokoa soziedadeara bidaltzeko dira, sobre itxi batean eta sobrarekin gainean PIO BAROJA'SARIA, idatzita.

4.—Lana makinaz bi ferro hutsik hutsik utziaz egonen da. Hiru kopia bidaltzeko dira bere izen-buru eta lemarekin. Berarekin ekarriko dute sobre itxi bat lehen esandako lema berarekin gainean idatzita. Sobre horren barrenean idazlaren izena, zuzenbidea eta ipularen izen-buru bialki behar dira.

5.—Lanak abenduaren 15ean eguerdiko ordu bata baino lehenago bidali behar dira.

6.—Bi sari izanen dira bat euskeraz egindako idazlanarentzat eta beste erdaraz egindako lanarentzat. Irabazle bakoitzari 15.000 pezeta eta oroitgarri bat sari bezala emanen zaizkio.

7.—Abenduaren 28an Pio Baroja jaio zen egunean juradaren erabakia jenden aintzinean emanen da.

8.—Bera Bidasoako «Gure-Txokoa» soziedadek lan hoiak jabe bezala agertuko da hiru urtean barrenean.

9.—15 urte bete ez dituztenentzat ere izanen da «Aurren lehen sariketa» bi sarikari. Bat euskeraz egindako lanarentzat eta beste erdaraz egindako lanarentzat. Bakoitzak 2.500 pezeta saria eta oroitgarri bat izanen ditu. Biltzerakoan jarri kondizio berak izanen dituzte. Desberdin haitze bakoirik; idazlan horiek lau foliotatik ez ditezke pasa.